



Oposizioaren blokeoa ala EH Bilduren gobernu taldearen utzikeria?

Beste behin ere, harriduraz entzun dugu EH Bilduren gobernu taldeak oposizioari leporatzen diola Laudioko arazoak konpontzeko aurrekontu partidak aurrera ez ateratzea. Oraingoan, Altzarrateko futbol zelaiak hain azkar behar dituen konponketak egiteko partida bat blokeatzea egotzi zaigu.

Gobernu kide izan ondoren eta etengabeko gutxiespenaren ondorioz bertatik irten eta gero, aurrekontu akordio batera iritsi ginen. Bertan gauzatu ez ziren partida ugari biltzen ziren eta orain, guri leporatzen zaigu blokeoa.

Gainera, gure buruari galdetzen diogu... gobernu taldeak dionaren arabera, otsailetik zelaiko belarrarentzako ur ponparen konponketa aurreikusita bazegoen, zergatik itxaron da uztaile arte osoko bilkurara aurrekontu aldaketarako proposamen bat ekartzeko?

Alkatetzak, nahi izanez gero, dekretu bidez bidera ditzake aurrekontu-sailak, diruzaintzako gerakinaren % 5 duelako nahi duenean gastatu ahal izateko, osoko bilkuratek igaro beharrik gabe; nahi adina erabiltzeko alkatearen esku egon

daitezkeen 1.400.000 € inguruz ari gara. Kasu honetan, denboraldiaurrea hasi baino lehen (irailaren hasieran) konpondu beharreko premiazko gai bat da. Otsailetik aurreikusita badago eta oposiziotik partida hau hainbeste blokeatu badugu, zergatik ez da erabili alkatetzaren ahalmen hori arazo honi irtenbidea emateko? Zergatik ez bizkortu prozesua, haiek nahi duten moduan kudeatuko balitz gehiegi luzatuko litzatekeena? Zergatik leporatzen diote oposizioari askoz lehenago egin ahal izan duten zerbait?

Beste behin ere, oposizioari errua botatzea beren kudeaketa txarra ezkutatzeko aitzakia besterik ez dela uste dugu. Hauteskundeak hurbiltzen ari dira eta legealdi osoan zehar nagusi izan den kudeaketa txar hau oposizioaren blokeo gisa mozorro nahi dute, beren errua ez dela eta besteok txarrak gara, herritarrengatik eta beren beharrez arduratzen ez garenak, emateko.

Haiekin batera osatu genuen gobernua, kudeaketa-ereduaren inguruko ezadostasunengatik (besteak beste) utzi genuen gobernua, eta 2025eko aurrekontuak negoziatu eta onartu genituen Laudioko herritarrekiko erantzukizunagatik. Gutxietsi egin gintuzten eta orain, aurrekontuaren % 5 kudeatu dezaketenean egun batetik bestera partida bat gaituz, OPOSIZIOARENA DA ERRUA?

LAUDION HERRITARRAROK EZ GARA LELOAK.